



EROS

IXO TEATROA

IXO TEATROA konpainia Arnatz Puertas eta Luix Mitxelena aktoreek sortu zuten.

Euskadiko ESAD den Dantzertin topo egin eta ikasketak amaitu ostean, profesionalki euren bidea batera eraikitzen hasteko erabakia hartu zuten.

Biak dira Pabellon 6eko Gazte Konpainia harrobiko kide. Betidanik izan dute komedia gestualaren bitartez istorioak kontatzeko grina.

Antzerki fisikoa dute adierazpide eta haren bidez mintzo nahi dute gatazka sozialen eta haien hausnarketa pertsonalen inguruan.

Azken finean, haien bizitza ikusteko modua eta pertsonak ulertzeko modua partekatu nahi dute antzerkiaren bitartez. Hitzik gabe harremantze horretan, giza jokabideen oinarria islatu nahi dute.



SINOPSIA

Bi pertsonen bikote-harreman bati hasiera
ematen dioten istorio horietakoa dugu hau.

Biak sentitzen dute elkar gustuko ez izatearen beldurra,
biak kikiltzen dira egia mingarriei aurre egiterako garaian
eta biek dute bestearen aurrean zaugarri azaltzeko lotsa.

Horrexegatik MASKARATZEN dira.

Bi maitemindu maskaratuen istorioa da

Eros eta bere maskarak.

Eros, maitasunaren jainkoaren gezi-kolpetik hasita,
hainbat jainko greziarrek oztopoak jarriko dituzte erlazioan:

Ares, gerraren jainkoak, bere eztabaidekin eta Kronos,
denboraren jainkoak, bere monotonia higuingarriarekin, besteak beste.

Hala, maitasuna tragedian urtzeko.

Ikuskizun honen bitartez maitasuna zaintzeko bidean
agertzen diren beldurren eta zailtasunen
inguruan hitz egin nahi da, hitzik erabili gabe.

Iraupena: 80 minutu



MASKARAK | MUTUA

Eta ba al da maskara horiez hitz egiteko maskaren ikuskizun bat sortzea baino aitzakia hoberik? Lengoaia hau piezaren tesiarekin lotuta egoteaz gain, aipatutako beldurrei bizia eman eta unibertso bat sortzeko tresna bikaina da.

Maitemindutako bikote baten beldurrak eraman nahi dira oholtzara komedia, antzerki gestual eta maskaren poetikaren bitartez.

Hitzaren ausentziak gaiaren unibertsaltasuna agerian uzten du.

Giza-harremanak ekintzekin adierazi nahi ditugu,
hitzik gabe ere gauza asko esaten direla frogatzeko helburuarekin.





ARNATZ PUERTAS

ZUZENDARIA

Arnatz Puertas Dantzerti Euskadiko Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolan graduatutako aktore euskalduna da.

15 urterekin hasi zen interpretazio munduan murgiltzen eta harez geroztik, formatzen jarraitzeaz gain, proiektu ezberdinetan ikusteko aukera izan dugu; bai antzerki-esparruan, baita ikus-entzunezko esparruan ere.

2019an Pabellón 6eko Gazte Konpainiako kide izatera iritsi zen Ramón Bareak zuzenduriko Ubú, rey de las finanzas antzezlanarekin. Konpainia berean lanean jarraitu zuen Iñigo Cobok idatzi eta zuzenduriko Todo saldrá bien eta Rey desnudo chico muerto antzezlanetan ere. Horrez gain, Getari Etxegaraik zuzendutako BBK aretoko azken produkzioan ere ikusteko aukera izan dugu Agur, Otxoa Feroz ikuskizunean, hain zuzen ere, eta baita Ramón Bareak zuzendutako Arriaga Antzokiaren produkzioan ere: La lucha por la vida.

Guzti honez gain, ikus-entzunezko munduan eginiko partehartzeak ere aipagarriak dira: Netflixeko Intimididad teleailean eta ETB eta K2000k ekoitziariko Itxaso teleailean.

Bere sormena eta lengoaia pertsonala ere bi sorkuntza propioetan azaleratu du: AUX laburmetraiean eta $1m^2=\infty$ antzerki arinean. Mar Navarro eta Estitxu Zaldua profesionalen eskuetatik maskarekin formatu ostean, lehen aldiz antzerki zuzendaritzara egingo du jauzi Arnatzek IXO Teatroa konpainiako lehenengo produkzioarekin: EROS eta bere maskarak.



AITOR ETXARTE

AKTOREA

1990eko maiatzaren 9an Durangon jaioa.

2013an ingeniari-tza teknikoko ikasketak amaituta Alguis Arlauskas eta Galder Pérezek zuzendutako Ánima eskolan arte dramatiko-a ikasteko erabakia hartu zuen.

Lehenengo ikasturtean zehar Rakel R. R.-ren zuzendaritza- peko Arymux Alma de Voltereta konpainian aritu zen eta harezkeroztik lanean ibili zen Bailando el Silencio zeinudantzazko ikuskizunean eta Bilboko Guggenheim museoarentzat eginiko Las sombras eta Holzer, escritos del mundo antzezlanetan.

2017an Aitor Arestirekin batera Binomio Teatro konpainia sortu eta ondorengo antzezlanak sortu zituzten: La versosaio, Turuuu el rey, El aire de la calle, Divinos pucheros eta La entrevista.

2019ko azaroan Pabellon 6ko Gazte Konpainiako produkzioan, Ramon Bareak zuzendutako Ubú, rey de las finanzas antzezlanean lan egiteko hautatua izan zen. Ordutik Gazte Konpainiako produkzioa ugaritan hartu du parte. Besteak beste, Gris, morir-se en Bilbao; Cómo domé un caracol en tus senos Galder Sacanellek zuzendua; El trepa de Palacio Felipe Lozak zuzendua; eta Love and money Cecile Marquetek zuzendua.





ITXASO GIL

AKTOREA

Itxaso Gil santurtziarrak txikitatik hasi zituen dantza klasiko eta modernoko ikasketak.

Nerabezaroan interpretaziotik jarraitzeko bidea hautatu zuenean, arte eszenikoetako batxilergoa egin zuen.

Bi urte beranduago Madrilgo William Laytonen laborategian matrikulatu zen.

Ikasketak hauek amaituta Pabellon 6ko Gazte konpainian parte hartu zuen Javier Liñerak idatzitako eta Borja Ruizek zuzendutako ¿Qué fue de Ana García? antzezlanean.

Honen arrakastaren eraginez, Gazte Konpainiako proiektu ezberdinetan ibili izan da: Iñigo Cobok idatzi eta zuzenduriko Todo saldrá bien; David Caiñak idatzitako eta Ane Pikazak zuzenduriko Gris, un musical de Bilbao; Iñigo Cobok idatzi eta zuzenduriko Rey desnudo y chico muerto.

Marea Teatrok ekoitzitako eta Javier Hernández-Simónek zuzenduriko Las que fueron silencio antzezlaneko aktore ere bada. Gaur egun interpretazioa integrazio sozialeko ikasketekin uztartzen ditu.



LEIRE ORMAZABAL

AKTOREA

Leire Ormazabal, 1995ean Bilbon jaioa.

Arte Eszenikoak ikasi zituen BAI eskolan (Bizkaiko Antzerki Ikastegia).
Hauek amaituta Madrilgo Víctor Ullate antzerki musikala ikasi zuen.
Bekatua izan da Amsterdam eta Alemaniako eskoletako nazioarteko antzerki proiektuetan.

Txikitatik izan da dantzari eta koreografia egile gisa ere lanean hasi da.

Glu Glu eta Eidabe konpainia musikal eta infantiletan ere aritu da eta gaur egun Ramón Bareak zuzendutako La Lucha por la Vida antzezlanean ere aktore gisa dabil. Zeinak, el Español gisako antzokietan egingo duen bira.

Ikus-entzunezko mundua Daniel(a) webseriean parte hartu du eta baita laburmetraia ezberdinetan ere.

Irekia, diziplinatua eta familiarra





LUIX MITXELENA

AKTOREA

Luix Mitxelena Mitxelena aktore Oiartzuarrak antzerkiarekin harreman zuzena txikitatik dakarkien arren, 17 urterekin hasi zuen formakuntza profesionala Marga Altolagirrerren Laborategian (2018-2019), jarraian arte dramatikoko ikasketak gauzatuz Euskadiko Dantzerti ESADean (2019-2023) eta egun kamera aurreko interpretazioko masterrean jardunez Urko Olazabalen BIZIE zine eskolan (2023-2024).

Eginiko bakarriketa oroz gain, antzerki produkzio profesional ezberdinetan parte hartzeko aukera izan du: We Are Alive (2018), Marga Altolagirrek zuzendua; La Ambición (2019) eta Animaliak (2022) biak Sergio Arcak zuzenduak; eta Txolarte (2020) Metrokoadrokaren site specifica; besteak beste.

Antzerki arinen munduan ere ibili da: Zergatik ez, Panpox? (2021) Orgasmo infinitua (2022), eta Haripiloak (2022).

Azken honi esker ezagutu zuten Pabellón 6 espazioan eta datorren urteko Gazte Konpainian hautatua izan zen Saioa Iribarrenek zuzendutako Komedia Madarikatua (2023) antzezlanean parte hartzeko. Azpimarratzekoa da ere bai, Besarkada sarietan eginiko Netflixeko Amabirjiña bakarriketa (2022).





NAGORE CENIZO-ARROYO

AKTOREA

Nagore Cenizo-Arroyo, aitaren eta amaren abizenarekin.

1994ean jaio nintzen eta txikitatik liluratu ninduten kirolak eta interpretazioak. Hala, alde batetik arte dramatikoa eta bestetik Jarduera Fisikoen eta Kirolaren Zientziak ikasi nituen. Antzerkiak orduan eta gehiago maitemindu ninduen eta pixkanaka joan nintzen mundu hartan barneratuz.

Hala iritsi naiz antzezlan ezberdinetan parte hartu eta eszenatoki ugaritara birak egitera. Besteak beste ¿Qué fue de Ana García?, Luces de Bohemia, Migraaaantes, El pabellón del Olvido, Rebelión en la Granja,...

Diziplina ezberdinetan ere kirola bizikide izan dut: Pole dance, zirku-arteak (airekoak), eskalada, igeriketa, dantza bertikala... Ikus-entzunezko munduan ere 2023an estreinatutako eta Silvia Muntek zuzenduriko Las buenas compañías filmeko parte hartzea ere aipagarria da Asun pertsonaia gorpuztuz.

Antzerki infantiletan ere parte hartu dut, besteak beste, Diberti Dantza antzezlanean Deabru Beltzak taldearekin eta Mugi zaitetz! disko-festan dinamizatzaile eta dantzari gisa.

Aipatutako formakuntzari ondorengo ikaskuntza osagarriak gehitu daitezke: Pablo Ibarluzearen nazioarteko eskolako Cuerpo. Espacio. Creación.; teatro sozialetako ikastaroak, ahotsa, interpretazioa kamera aurrean... Esango nuke ez zaiola sekula ikasteari eta hazteari uzten.




TALDE ARTISTIKOA




JAVIER TIRADO
Maskarak



BETITXE SAITUA
Jantzitegia




ADRIÁN GARCÍA DE
LOS OJOS
Soinu-espazioa




AITOR GARCÍA
Argiztapena



LEIRE MENDIZABAL
Eszenografia



ELURTZA MITXELENA
Diseinu grafikoa



ERIK BENGOTXEA
Diseinu grafikoa